

## **BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK:**

Bezeroengana, kasu honetan supermerkatuak, kanal propioak erabiliz iritsiko gara. Online edota enpresan bertan erosi ahal izango dute produktua, hau da, kanal zuzenaren bitartez. Gainera, salmenta pertsonala eskainiko zaie, gure enpresako komertzialak bertaratuko dira supermerkatuetara gure produktua bistaratzeko txikiskariekiko salmenta bileratan, hau da, supermerkatuekin bilerak antolatuko ditugu gure produktua aurkezteko, horretarako lehendabizi beraiekin kontaktuan jarriko gara bileraren eguna zehazteko. Horrez gain, ebentuetara joango gara gure produktua ezagutzera emateko.